

# BUFFALO BILLEN KONTRAESANAK



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Iowa (AEB), 1846ko otsailaren 26a. William Frederick Cody esploratzaile eta ehiztaria, Buffalo Bill ezizenez ezaguna, jaio zen. 14 urte besterik ez zituela, Pony Express mezularitza enpresa sortu berrian hasi omen zen lanean, eta zaldizko eta ehiztari trebe bihurtu zen. Sezesio Gerran parte hartu zuen, Batasunaren aldean. Eta gerra amaitutakoan *Far West*-a (mendebalde urruna) esploratzeari ekin zion berriro, Kansas Pacific Railroad trenbide enpresarentzat. Curriculum horrek heroi eta mito bihurtu zuen, Ned Buntline nobelagile eta lagunaren bultzadaz. Bizitzaren azken 30 urteetan ospe horri etekina atera zion, *Wild West* (1883) ikuskizunaren bidez.

Milaka bisonte amerikar hil zituen Buffalo Billek. Kansas Pacificeko langileek bisonte haragiz elikatzen ziren nagusiki, eta Codyk marka ikusgarriak lortu zituen haien hornikuntzan: 30 minutuan 48 bisonte bota zituen; zortzi hilabeteetan, 4.280. Espeziaren desagertzeari egindako ekarpen horrek eman zion *Buffalo* ezizena.

Gizakiak ere dozenaka hil zituen, batez ere indioak. Haien kontrako hamasei gerratan parte hartu zuen, Ile Hori buruzagi cheyennea esku hutsez hil omen zuen, eta ikuskizunetan bertatiarrak gutxietsi zituen. Hala ere, iraganean egindakoaren aurka predikatu zuen hainbat arlotan. Esaterako, bisonte amerikarra



Buffalo Billen ikuskizunaren kartela.

ROCK ISLAND AUCTION

kontserbatzeko neurriak bultzatu zituen. Ehiza garaia mugatzen eta arautzen ahalegindu zen. Alferrik.

Gizaki guztien eskubideen aldeko diskurtsoa ere zabaltzen saiatu zen komunikabideetan. 1898an *The Milwaukee Journal*-eko kazetariak emakumeen sufragioa babesten ote zuen galdetu zion eta hark baietz erantzun zuen, gehienek ezezko borobila erantzungo luketen garaian. Annie Oakley garaiko tiratzaile trebeena kontratatu zuen ikuskizunarako eta Calamity Jane bera ere ezagutu omen zuen. "Idatz ezazu letra handi

beltzetan emakumeen sufragioaren alde nagoela. Emakumeek dagokien tokira itzuli behar dutela dioten gizonen barrea eragiten didate. Emakumeek gizonen lana berdin egin dezakete eta berdin ordaindu beharko liekete".

Azkenik, esan bezala, Buffalo Billen ikuskizunetan indioak gaiztoak izan ziren beti; bere diskurtsoan, ordea, ez. *Dallas Morning News* egunkariari adierazi zionez, "indioei erasotzen nienean lotsa ematen zidan nire buruak, eta damua sentitzen nuen. Gure aurka borrokatzeko eskubide osoa zuten". ■



RAGGI VIVAI TARTOFICOLTURA

## Jainkoen oparia ala deabruaren tranpa?

Antzinaroan, Egipton nahiz Grezian, trufa jada sukaldaritzan erabiltzen zen eta oso preziatua zen. Erroman jatorri jainkotiarra eman zioten ondo preziatuari: Juvenal olerkariaren arabera, Jupiterrek haritz baten ondoan botatako tximista batek sortu zuen. Erdi Aroan, ordea, Eliza Katolikoak trufaren aurkako gurutzada abiatu zuen. Afrosidia-

ko tentagarri arriskutsua omen zen eta gainera sufre usaina antzematen zioten, deabruarekin lotuta zegoen seinale. Musulmanak ere ez ziren ondoaz fio; XV. mendeko Sevillako arau batek meskiten inguruan trufak saltzea debekatu zuen. Errenazimendutik aurrera trufek jainkozko estatusa berreskuratu zuen sukaldean, eta prezioan. ■